

Wilhelm von Humboldten garrantzia hizkuntzalaritza modernoarentzat

(The importance of Wilhelm von Humboldt for the modern linguistics)

Gipper, Helmut
Westfälische Wilhelms-Universität Münster
Schloßplatz, 2
48149 Münster

BIBLID [0212-7016 (1996), 41: 2; 393-400]

Humboldten zenbait alderdi ezagunen aldamenean –Berlingo unibertsitatearen sortzailea, politikoa, idazlea, itzul-tzailea, etab.–, hizkuntzari egindako ekarpen handia nabarmendu beharra dago. Ekarpen hori funtsezko hiru ideietan laburbil daiteke: hizkuntza bakoitza mundu ikuskera gisa hartzea, hizkuntza energeiatzat hartzea eta hizkuntzaren barne-forma kontzeptua. Horrenbestez, Humboldt dugu hizkuntzalaritzaren oinarritze globala eman zuen lehen pentsalaria.

Gitz-Hitzak: Fonetika Hizkuntzalaritza. Estructuralismoa.

A pesar de que Humboldt estableció una fértil base para la lingüística, su desarrollo histórico-comparativo dominante siguió otros caminos a través del estudio de las leyes fonéticas indoeuropeas. El posterior estructuralismo positivista tampoco siguió la dirección de Humboldt. Es con Cassirer cuando se produce una recuperación de sus ideas, que Leo Weisgerber desarrolló con profundidad. Luego ha habido una recuperación desde el estructuralismo y actualmente hay un movimiento en Alemania que trabaja bajo el lema de un nuevo Humboldt.

Palabras Clave: Fonética. Lingüística. Estructuralismo.

Bien qu'Humboldt établit une base fertile pour la linguistique, son développement historique-comparatif dominant suivit d'autres chemins à travers l'étude des lois phonétiques indo-européennes. Le structuralisme positiviste postérieur n'a pas suivi non plus la direction d'Humboldt. C'est avec Cassirer que se produit une récupération de ses idées, que Leo Weisgerber développa plus profondément. Il y eut ensuite une récupération depuis le structuralisme et actuellement il y a un mouvement en Allemagne qui travaille sous la devise d'un nouveau Humboldt.

Mots Clés: Phonétique. Linguistique. Structuralisme.

Gai honi buruz iadanik orain dela 30 urte hitz egin nuen Humboldt-kongresu batean, eta gainera Wilhelm von Humboldten langelan, bere Berlingo Tegel gazteluan¹. Hitzaldiaren arratsalde hartan berezia izan zen Humboldten zenbait ondorengo, hau da, oraindik bizi diren bere familiako kideak han zeudela eta ekitaldiari esparru bakana ematen ziotela. Horrela, Wilhelmen bilobaren biloba bat, era berean Wilhelm izena duena, Mexikotik etorri zen, non banka lanetan ari den. Hitzaldiaren ondoren zera esan zidan, ez zekiela zein garrantzitsua izan zen Humboldt hizkuntzalari gisa eta bere lana gaur oraindik hainbeste balioztatzen zenik.

Benetan, 1835eko apirilaren 8ko arratsaldean, beraz, orain dela 160 urte baino gehiago, Tegelen hil zenean, garaikideek batez ere estatu gizon eta diplomatikoaren heriotza arreguratu zuten, Prusia denbora napoleondar zailetan zerbitzatu zuena, eta gero Berlingo Unibertsitatearen oinarriak jarri zituen eta institutu humanistikoaren sortzailea. Baina bere bizitzako azken hamabost urteetan ia guztiz hizkuntzaren estudioan aritu zela eta hizkuntzaritza orokor berri baten oinarriak jarri zituela, gehienentzat ezezaguna zen.

Ihardunaldi hauetako nire aurreko hitzaldian iadanik azaldu dut Humboldt bere garaiko hizkuntzalari garrantzitsuenetakoa bihurtu zela. Hizkuntzaren estudioak bere bizitza hari gidari gisa zeharkatu zuela eta hizkuntzen jakitun bilakatu zela erakutsi dut, bere jakintzak hizkuntzalari gehienena askogatik gainditu zuelarik, eta ez soilik bere garaikoena, baita ondorengo hamarkadetakoena ere. Ondoren Wilhelm von Humboldtek bilakatutako hizkuntzaren ulermena adierazi dut eta kontzeptu nagusiak esplikatu ditut, adibidez, mundu-ikuspegi linguistikoaren pentsamendua, hizkuntza *Energia* gisa ulertzea eta hizkuntzaren barne-formaren pentsamendua. Garrantzitsua da hizkuntzaren ulermen hau oinarri antropologiko eta hizkuntz-filosofiko zabal batean oinarritzen dela eta hizkuntza Humboldtengan komunikazio bitartekoa baino askoz gehiago dela. Hizkuntzak gehienbat gizakiari mundurako sarrera izpirituala irekitzen dio eta besteekin batera berari buruz hitz egitea ahalbidetzen du. Honekiko zera ohartu behar da, Humboldtek hizkuntzaren fenomenoaren beti hiru mailatan kontsideratzen duela:

1. Gizabanako bakanaren mailan, beraz maila indibidualean,
2. "Nazioen" mailan, Humboldtek dioten gisa, beraz hizkuntz-komunitateen mailan, eta
3. Gizatasunaren mailan, hizkuntza giza espeziearen ezaugarri esentzial gisa.

Humboldtentzat erdikoa izango da maila garrantzitsuena, beraz munduko hizkuntza ezberdinena. Hemen aurkezten baitzaizkio hizkuntzak hizkuntzalariari ikerketa eremu konkretu gisa. Hemen ahalbidetzen dira deskribapen linguistiko eta gramatikak, eta hemen aurkitzen dira ere hizkuntza jakin batek bere erabilera praktikoan zein emaitza bereziak lor ditzakeen erakusten duten literatur dokumentuak. Eta hemen ahalbidetzen da batez ere, hizkuntzen alderaketaren bidez hizkuntza bakan bakoitzaren berezitasuna eta izaera ulertzea, eta honekin hizkuntza batek bere hiltzunei irekitzen dien pentsamen aukeretara sarrera lortu. Hizkuntzen ezberdintasunak pentsamen aukera hauen aberastasuna erakusten du, eta hizkuntzalaritzak mundu-ikuspegi (Weltansichten) linguistikoaren ikerketa bitartez giza izpiritua ezagutzarako laguntza garrantzitsua eman dezake.

1. H. Gipper: Wilhelm von Humboldts Bedeutung für Theorie und Praxis moderner Sprachforschung. Münster: Nodus Publikationen 1992, 41-56 (H. Gipper: Theorie und Praxis inhaltbezogener Sprachforschung. Aufsätze und Vorträge 1953-1990, Bd. 1).

Arrazoi hauengatik defendatu dut Wilhelm von Humboldt hizkuntzalaritza modernoaren sortzaile gisa onar daitekeelako ideia. Bere hizkuntzaren ulermena, beraz, bide irekitzaile da, zeren giza existentziaren alde garrantzitsu guztiak kontutan dituzenez, ezin daiteke linguistika modernoaren norabide berezi guztiek duten aldebakartasunaren arriskuan eror.

Noski, berehala kontraesan daiteke: non aurki daiteke hizkuntzalaritza modernoan egitan Wilhelm von Humboldten hizkuntzaren ulermenaren eragin ondoriotsurik? Nola eta non utzi ditu bere ekinaren aztarnak?

Orain, lehenik, Humboldten heriotzaren ondorengo Alemania eta Europako hizkuntzalaritza-eraren egoera kontsideratu behar dugu. Humboldten bizi garaian iadanik eremu honetan ondorio sakoneko aldakuntza ezarri zen². Horretan erabakiorra izan zen 18. mendean funtzionari ingelesek Indian berriro ezagun bihurtutako sanskrito, India sakratuaren hizkuntza. Hiru pertsonai azpimarratu behar dira hemen: Sir Charles Wilkins (1750-1833), Sir William Jones (1746-179) eta Henry Thomas Colebrooke (1765-1837). Wilkins East India Companyren zerbitzuan iritsi zen Indiara eta bertan sanskrito ikasi zuen. Hizkuntzetarako erraztasun handia zuen Jones epaile nagusia zen Kalkutan eta sanskrito ikasi zuen, bereziki zuzenbide ordena indiar berri baten lanketarako guztiz erabilgarria zelako. 1786ko otsailaren 2an berak sortutako Asiatic Society esparruan "On the Hindus" bere hitzaldi sonatua egin zuen, ondorengo hizkuntzalaritza historiko-alderatzailearen jaiotza agiri gisa onar daitekeena. Grekera eta latinaren gainetik jartzen duen sanskritoaren egitura harrigarria erakutsi zuen, eta hizkuntza zahar hauekiko antzekotasun gramatikoak azpimarratu zituen, zeinak ausazkoak ezin zitezkeen izan, baizik gehiago jatorri amankomunaren onarpena iradokitzen zuten. Jonesek uste zuen gainera, hizkuntza zelta eta gotikoa, persa zaharrarekin batera hizkuntza familia amankomun berdinean kokatzea zilegi zela. Colebrooke Indian funtzionari eta epaile izatetik College indiar batean "Professor of the Sanscrit Language" izatera iritsi zen eta bere garaiko sanskritoaren filologo garrantzitsuena bihurtu zen. Sanskritoaren gramatika eta hiztegi bat argitaratu eta Paniniaren gramatika sonatua publikatu zituen. Honekin sanskritoaren ikerketa oinarri seguru baten gainean jarri zuen.

Egitan, iadanik 16. eta 17. mendeetan jakintsu bakanez, bereziki misiolari jesuitek, sanskrito landu zuten eta gainera antzekotasunak zehaztu zituzten, adibidez zenbaki-izen greko, latino, italiar eta alemaniarren artekoak. Era berdinean India zaharra eta Persiaren arteko kidesasuna, eta baita indiar, greko eta erromatarren artekoa ere somatu zen. Baina Jonesen hitzaldia izan zen hizkuntz kidesasun indoeuroparrarekiko ekinaldi berri eta bizi baten benetako eragilea. Hizkuntzalaritza europarra eginkizun izugarri baten aurrean topatu zen, hau da, sanskrito benetan hizkuntza europarrekin genetikoki kidesua ote zegoen galderari erantzutekoa. Hortik sortu zen 19. mendearen hasieran hizkuntzalaritzaren historian Indogermanistika gisa sartu den hizkuntzalaritza alderatzailearen korrante handia. Izen honek berri aurkitutako hizkuntza familiaren ekialdeko poloa, hau da, India sanskritoarekin, eta mendebaldeko poloa ingeles germaniarrekin biltzen ditu pentsamenduan. Baina gainera hizkuntza erromatar eta eslaboak jaso behar direnez, 'indoeuropar' adierazpenari lehenetsuna eman behar zaio.

Hizkuntzalaritza historiko-alderatzaile berriaren aitzindariak Franz Bopp (1791-1867), Rasmus Kristian Rask (1787-1832) eta Jakob Grimm (1785-1863) izan ziren. Baina Friedrich (1772-1829) eta August Wilhelm Schlegel (1767-1845) anaiek ere bilakaera horretan parte hartu zuten. Ezaguna da Wilhelm von Humboldtek horretan partehartze bizia izan zuela.

2. Honekiko berezitasunak: Gipper, Helmut/Schmitter, Peter: Sprachwissenschaft und Sprachphilosophie im Zeitalter der Romantik. Tübingen: Narr ²1985.

Berak Tegelen sanskritoa ikasi zuen, Bopp eta August Wilhelm Schlegel babestu zituen eta hauekin etengabeko harremanean zegoen.

Honekin, ordea, hizkuntzalaritza alemaniar eta europarra Humboldtzen hizkuntzaren ulermenetik desbideratzen zuen norabidera bultzatu ziren. Hizkuntzalaritza historiko-alderatzaileak gero eta gehiago nagusigoa irabazten zuen eta gramatiko gazteak deitutakoek diziplina gainera zientzia zehatz bihurtu nahi zuten. Aurkitutako lege fonetikoaren usteko salbuespenaren inguruko gatazka sonatuak ahalegin hauen irudi zirraragarria ematen du.

Noski, Humboldt ez zen erabat ahaztua izan. Humboldtzen tradizioa batez ere hizkuntz-tipologien eremuan etenik gabekoa da. Aurreko hitzaldian iadanik aipatu dut, Humboldtzen hizkuntza flexiodun, aglutinatzaile, isolatzaile eta inkorporatzaileak bereizi zituela. Baina argi zitzaien, hizkuntzen kidego tipologikoan, ez genetikoan, oinarritutako sailkaketa onargarrirako garaia ez zela heldu eta hizkuntza nahasketa anitzengatik ezin litekeela tipo hutsik egon. Heyman Steintahl (1823-1899) hizkuntzalari berlingarrak bere klasifikazioa sailatu zuen³, Humboldtzenarekin loturan, Franz Misteli (1841-1903) suitzarrak birlandu eta zabaldu zuena⁴. Franz Nikolaus Finck⁵ (1867-1910) eta Ernst Lewy⁶ (1881-1966) ikerketa norabide honetan fase berria hasi zuten. Johannes Lohmannek hizkuntz-egituraren tipo nagusien interpretazio filosofiko ausarta bilakatu zuen horretarako Martin Heidegger-en (1889-1976) kategorietara joz (hizkuntzen diferentzia eta indiferentzia ontologikoak)⁷.

Steinthal zen Humboldtzen lana jarraitu eta osatu nahi zuen bakanetakoa, baina ezin zuen hori lortu, ez baitzuen filosofia hortarako oinarri egokitzat kontsideratzen, psikologia baizik. Johann Freidrich Herbart (1776-1841) psikologoaren eragin indartsupean zegoen, honek espekulazio filosofikoa errealitateari hurbilagoko psikologia baten bitartez ezabatzea bultzatzen zuen. Zuzena da noski, aurreuposizio psikikoak kontutan izan gabe fenomeno linguistikoak ezin direla egoki deskribatu, baina Steinthalen interpretazio berriak ezin zitezkeen Humboldtzen asmoekiko zuzenak izan. Humboldtzen lanaren zabalpena eta berrezagutza lortzeko August Friedrich Pott (1802-1887) ahaleginek ere arrakasta gutxi izan zuten.

Gure mendean soilik ezarri ahal izan dira ikerketa norabide berriak joera historikoko indogermanistikaren ondoan. Hemen Ferdinand de Saussure (1857-1913) aipatu behar da bereziki, noren 1916an azaldutako *Cours de linguistique générale*⁸ hizkuntzaren kontsiderazio sinkronikoa eta hizkuntz sistemen analisia aldarrikatu zuen. Humboldtzen hizkuntzaren ulermenak Saussuren zenbait pentsabideetan paraleloak aurkitzen ditu, eta posible da Steinthalen bidez Humboldtzen lana ezagutu izatea. Baina honen frogak zuzenak, nik dakidan neurrian, ez dira lortu.

Gure mendeko lehen erdiko korrante linguistiko eragingarriena ordea, estrukturalismo amerikarra izan zen, zeina jatorri europarretik bazetorren ere (Jakobson (1896-1982), Trubetzkoy (1890-1938) besteen artean), lehenik Estatu Batuetan nabarmendu zen. Leonard

3. Steinthal, Heymann: Charakteristik der hauptsächlichsten Typen des Sprachbaues. Berlin: Dümmler 1863.

4. Misteli, Franz: Charakteristik der hauptsächlichsten Typen des Sprachbaues. Berlin: Dümmler 1863.

5. Finck, Franz Nikolaus: Die Haupttypen des Sprachbaus (1909). Nachdruck: Wissenschaftliche Buchgesellschaft, Darmstadt 1936.

6. Lewy, Ernst: Der Bau der europäischen Sprachen. Tübingen: Niemeyer 1964.

7. Lohmann, Johannes: Philosophie und Sprachwissenschaft. Berlin: Duncker & Humblot 1965.

8. Saussure, Ferdinand de: Cours de linguistique générale, publié par Ch. Bally, A. Sechehaye, A. Riedlinger. Paris: Payot 1955.

Bloomfield (1887-1949) eta Zellig S. Harris (1909-1992) aipatu soilik egiten ditut ikerketa norabide honen jarraitzaile nabarmenen gisa, zeinak oinarri neopositibista duen, hau da, behagarri eta neurgarri diren egitateak soilik onartzen dituen eta, beraz, batez ere hizkuntzen egitura fonetikoak deskribatzea saiatzten duen norabide filosofikoa. Esanahi garrantzitsuak ez zituzten zehazki ulergarritzat eta hauen ikerkuntza psikologiari utzi nahi zitzaion, egiteko hau, ordea, honek ere ezin zuelarik onartu.

1920ko hamarkadan soilik hasi zen Alemanian Wilhelm von Humboldten benetako atze-aroroimena, eta Ernst Cassireren (1874-1945) "Philosophie der symbolischen Formen" hiru liburukiko lanak eragin zuen, zeinaren 1923ko lehen liburukiak hizkuntza aztertzen duen⁹. Hemen Wilhelm von Humboldten hizkuntz-zientziako eta hizkuntz-filosofiako lana hain biziki onerizten ziren, Humboldtetikiko interesa berriro esnatu ahal izan zela. Baina benetan Cassirerekin loturan Humboldt benetan berriro aurkitu zuena Leo Weisgerber (1899-1985) nire maisua izan zen, nor 1925etik aurrera hizkuntzaren ulermen energetiko, edukiari zuzendua bilakatu zuen, zeina erabat Humboldt eta Johann Gottfried Herder-en (1744-1803) oinarriaren gainean eraikitzen zen. Tamalez argitaratugabeko 1924eko bere irakaskuntza gaitasunerako tesia, "Sprache als gesellschaftliche Erkenntnisform. Eine Untersuchung über das Wesen der Sprache als eine Theorie des Sprachwandels", iadanik Humboldten aipamen baten mottopean jarri zuen eta profesore gisa lehen hitzaldian 1925ean "Das Problem der inneren Sprachform und seine Bedeutung für die deutsche Sprache"¹⁰ landu zuen. Bertan Humboldten pentsamendu garrantzitsu bat jasotzen zuen. Hurrengo idatzietan ere behin eta berriz Humboldti erreferentzia egin zion eta 1948an ikusmolde linguistikoaren Humboldten pentsamendua hizkuntza alemaniarraren deskribapenaren bitartez probatzeko saiakera ekiten lehena izan zen. Idazki hau "Vom Weltbild der deutschen Sprache"¹¹ izendatu zuen, non *Weltbild* adierazpenarekin *bilden* energetikoari lotu eta honekin estatikoezia iruditzen zitzaion *Weltansicht* ordezkatu nahi zuen. Honekin aldeberean Humboldten hizkuntzaren pentsamendua Energeia (indar eragilea) gisa kontutan izan behar zen, gertatu ez zena, *Bildekin* era berean zerbait estatikoa pentsatzen baita. 1953/4ean bigarren erredakzio zabaldua aurkeztu zuen bi liburukitan: 1. Edukiari zuzendutako gramatika, 2. Munduaren irekitze linguistikoa. Hortik orduan lau liburukiko lana sortu zen "Von den Kräften der deutschen Sprache" izenburu orokorrekarekin, zeina 1962an hirugarren eta berriro landutako argitarapenean azaldu zen (Lehenengo liburukia: Grundzüge der inhalbezogenen Grammatik, bigarren liburukia: Die sprachliche Gestaltung der Welt, hirugarren liburukia: Die Muttersprache im Aufbau unserer Kultur, Laugarren liburukia: Die geschichtliche Kraft der deutschen Sprache). Hizkuntza alemaniarraren adibidearekiko Humboldten hizkuntzaren ulermenaren probatze honek pisuko emaitza aurkezten du¹².

Weisgerber-ek zentzu honetan lan egin zuten borroka lagunak ere izan zituen noski. Nik Hennig Brinkmann, Johannes Erben, Hans Glinz, Walter Porzig (1895-1961) eta Jost Trier (1894-1970) soilik izendatzen ditut. Trier-ek batez ere eremu linguistikoaren bere proiektuarekin lagundu zuen, zeina hizkuntzaren edukiaren ikerketaren zutabe bihurtu zen. Ni neu ere

9. Cassirer, Ernst: Philosophie der symbolischen Formen . Erster Teil: Die Sprache (1923). Neudruck: Wissenschaftliche Buchgesellschaft Darmstadt 1958.

10. Weisgerber, Leo: Das Problem der inneren Sprachform und seine Bedeutung für die deutsche Sprache. Germanisch-Romanische Monatschrift 14, 1926, 241-256.

11. Weisgerber, Leo: Vom Weltbild der deutschen Sprache. Düsseldorf: Schwann 1950.

12. "Von den Kräften der deutschen Sprache"-ko liburuki guztiak Schwann, Düsseldorf 1953-1962.

erabat tradizio honetan kokatu naiz, bere bilakaeran aktiboki parte hartu dut eta ikerketa propioekin hasitakoa aurrera bultzatzen saiatu naiz.

Hizkuntzaren edukiaren ikerketa mende erdialdean oso arrakastatsua izan zen Alemanian, orduan ordea kaltetua izan zen, gehienbat arrazoigabe ziren objekzio politikoak egin zitzaizkiolako eta beste ikerketa norabideei lehentasuna eman zitzaielako. Ahalegin hauek apenas izan zuten oihartzunik atzerrian, itzulpenik ere ez baitzegoen. Korea eta Japonian soilik jaso zen hizkuntzaren edukiaren ikerketa. Korear eta japoniar ugari ikasi zuten Weisgerber-ekin Bonn-en eta nirekin Münster-en, eta edukiari zuzendutako Humboldtzen hizkuntzaren ulermena zabaldu zuten bere aberrietan. Baina Asia urruneko ikasketak germanistikoekin atzerakadarekin batera eragin hau ere gutxira doa.

Batere itxaron gabe, ordea, Estatu Batuetan ere antzeko hastapenak agertu ziren, aldeaz gainera Humboldtengana joz. Alde batetik, Benjamin Lee Whorf (1897-1941) amerikanista, Edward Sapir (1884-1939) linguista amerikar garrantzitsuen ikaslea, izan zen alde terminologian bertan ere Humboldt eta Weisgerber-en ulermenekin antzekotasun nabarmena zuen hizkuntzaren ulermena bilakatu zuena¹³. Iparramerikako indiarren hizkuntzak landuz ezberdintasun handia zegoela otu zitzaion, ez kanpoko hizkuntzaren formara soilik zabaltzen zena, baizik baita esparru semantikoa ere ikutzen zuena. Bereziki Hopi hizkuntza lantzean, Arizonako leinu indiar txiki baten hizkuntza, gainera uste zuen hizkuntza hau eta mendebaldeko hizkuntzen arteko, "Standard Average European" kontzeptuan bilduta, ezberdintasun oinarrikoa zehatz zezakeela. Horrekiko *pictures* edo *views of the world* ezberdinetaz hitz egiten du. Whorfen gaineko Humboldtzen eragin zuzena, ordea, orain arte ezin ahal izan da frogatu.

Bestetik, Noam Chomsky izan zen bere eraldakuntzaren gramatika sortzailearen oinarritapen teorikoan espreski Humboldtengana jo zuena. Hau sorpresa handia izan zen, batik batik Chomsky estrukturalista zorrotz gisa hasi baitzen. Bere gramatika sortzailearen eraikuntzarako oinarri filosofikoa bilatu zuen, lehenik Descartesengan, gero ordea Humboldtengan aurkitu izana uste zuelarik. Hemen batez ere arazoa zera zen, hizkuntza bat hitz egiteko gauza den hiztunak nola uler ditzakeen inoiz entzungabeko amaigabe esaldi eta inoiz esandako amaigabe esaldi nola sor ditzakeen. Hemen Humboldt etorri zen laguntzera, berak hizkuntza jarraikorki berri sortzeko giza gaitasuna azpimarratu baitzuen. Humboldték esan zuen: "Hizkuntza ezin da produktu (Erzeugnis) hil gisa begiratu, baizik gehienbat produkzio (Erzeugung) gisa"¹⁴. Hemen Humboldtzen formaren kontzeptua estuki lotua zegoen. Eta horrela idatzi zuen Chomskyk: "'Formaren' kontzeptua 'prozesu sortzaile' gisa Humboldtzen hizkuntzaren izaeraren multzo osoaren oinarrian dago eta linguistikaren teoriarentzako bere jatorrizko ekarpen emankorra da agian"¹⁵.

Chomskyk, noski, Humboldtzen oinarriko pentsamenduak ez ditu zuzenki ulertu. Gaizkiulertze "emankorra" gertatu dela esan daiteke, baina hau orain ezin da zehazkiago oinarritu.

13. Whorf, Benjamin Lee: *Language, thought and reality. Selected Writings*. Cambridge: The Massachusetts Institute of Technology/New York: Wiley/London: Chapman and Hall 1956.

14. Humboldt, Wilhelm von: *Ueber die Verschiedenheit des menschlichen Sprachbaues und ihren Einfluss auf die Geistesentwicklung des Menschengeschlechtes. Gesammelte Schriften 1903-1936. Nachdruck Berlin: de Gruyter 1967-1968, Bd. 7, 44. or.*

15. Chomsky, Noam: *Current issues in linguistic theory*. London/The Hague/Paris: Mouton 1964, 17. or.

Dena den, Humboldt berriro hizkuntzalaritza modernoaren bizigarri ohargarria bihurtu da eta ordutik mundu anglosaxoiean ez da nahasten gehiago Alexander bere anaiarekin, noiz-behinka gertatu izan den moduan. Agian Humboldtek atzerrian arretea gutxi lortu izatearen oinarritzko arrazoa bere alemaniera nahaspilatua ulertzeko erreza ez izatean eta ondorioz oraindik ere benetan onak diren itzulpenen faltan bila daiteke.

Alemanian Humboldtera atzeraoroiaren pozgarria gertatu da filosofian. Euskal Herrian ezagunak izan beharko luketen izen batzuk aipatzen ditut: Karl Otto Apel, Hans-Georg Gadamer, Martin Heidegger, Erich Heintel (Austria) eta Bruno Liebrucks (1911-1986). Honekin gainera eragin handia lortu zuten Ludwig Wittgensteinen (1889-1951) hizkuntz-filosofiako ulermenak guxtienez erlatibizatu ziren.

Bukatzeko oraindik ere urte batzuetatik honera Alemanian linguista eta filosofoak partaide diren Humboldtera itzulera guztiz berria somatzen dela aipatu behar da. Hemen izen garrantzitsu batzuk soilik aipatzen dira: Tilmann Borsche, Hans-Werner Scharf, Helmut Müller-Sievers, Jürgen Trabant eta Kurt Müller-Vollmer alemaniar-amerikarra. Ia denak belaualdi gazteago batekoak diren jakintsu hauek Humboldten testuen interpretazio berri bat egiteko ahaleginean ari dira. Horrela, Humboldten lanaren balioztapen berri baterako bide ematen duten, alde guztiz berriak diren ikuspuntuak irabazi dituztela uste dute. Gaur egun "Humboldt berri" batetaz hitz egiten da. Hau benetan horrela balitz, noski agurtzekoa litzateke. Ikerketa berrien emaitza batzuk guztiz ohargarriak dira, baina zalantzak sortzen dira orain arteko Humboldten ikerketa gaindituztat eta han hemenka gainera faltsutzat aurkezten denean. Hemen betoa jarri behar da. Interprete berrien gaia batez ere Humboldten testuen interpretazio zehatza bera da. Hortik hizkuntzalaritzako ikerketa praktikorako ondorioztat atera daitekeena gehienei bigarren mailan soilik interesatzen zaie. Azpimarratzekoa da Humboldten galdutako idatzi multzo baten aurkikuntza berriarekin Müller-Vollmer-ek merezimendua lortu duela¹⁶. Dokumentu hauek, noski, oraindik aztertu egin behar dira. Nik, ordea, Weisgerber nire maisuak bezalaxe, hizkuntzalaritzaren lanerako ikastekoa den ikuspuntutik irakurri dut Humboldt. Bereziki Humboldten pentsamendu gidatzaileak baieztatu ahal daitezkeen ala ez praktikoki probatzen ahalegindu naiz. "Bai al dago munduaren irudi linguistikorik?" edo "Nola lortzen du hizkuntza bateko hiztunak bere ama-hizkuntzaren mundu-irudia?" moduko galdera garrantzitsuak erantzuten saiatu nintzen beraz. Hor auresuposizio antropologiko eta zentzuen fisiologikoak hizkuntzaren jatorri filogenetiko eta ontogenetikoarekin batera kontutan izan behar ziren. Batez ere gizaki batek bere ama hizkuntza nola eskuratu duen erakusten duen hizkuntzaren ikasketaren prozesua jaso behar zen. Arazo hauek denak "soin aprioria" (Leibapriori) eta "hizkuntz aprioria" (Sprachapriori) kontzeptupean labur daitezke¹⁷. Nire konbentzimenduaren arabera hau da Wilhelm von Humboldten lan handia hizkuntzalaritza eta hizkuntzaren filosofiarako emankor egiteko bide bakarra. Agurtzekoa litzateke, Humboldtengan interesa duten jakintsu euskaldunek horretan parte hartuko balukete.

Itzulpena: Ibon Uribarri

16. Wilhelm von Humboldts Sprachwissenschaft. Ein kommentiertes Verzeichnis des sprachwissenschaftlichen Nachlasses von Kurt Mueller-Vollmer. Paderborn/München/Wien/Zürich: Schöningh 1993.

17. Gipper, Helmut: Das Sprachapriori. Sprache als Voraussetzung menschlichen Denkens und Erkennens. Stuttgart-Bad Cannstadt: Frommann-Holzboog 1987.